

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	GAS-SAREEN MANTENTZE-LANEN ANTOLAKETA ETA KONTROLA		Iraupena	80
Kodea	MF1205_3			
Lanbide-arloa	ENERGIA ETA URA			
Lanbide-eremua	Gasa			
Profesionaltasun-ziurtagiria	Gas-sareen muntaketaren eta mantentze-lanen kudeaketa	Maila	3	
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Gas-erregaiak banatzeko eta erabiltzeko sistemak	Iraupena	80	
	Gas-sareak ezartzeko plangintza		60	
	Gas-obren muntaketa		60	
	Gas-obren muntaketaren kalitatea eta kudeaketa		60	
	Gas-sareak martxan jartzeko sistemak		50	
	Gas-sareetako lan- eta ingurumen-arriskuen kudeaketa		50	
	Gas-sareen muntaketa eta mantentze-lanak kudeatzeko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80	

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC1205_3. GAS-SAREEN MANTENTZE-LANAK ANTOLATZEA ETA GAINBEGIRATZEA.

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA
Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Gas-sareen funtzionamendu orokorra aztertzea, mantentze-plana ezartzeko.

EI1.1 Dagokion dokumentazio teknikoetik abiatuta, gas-sare baten funtzionamendua deskribatzea, eta sarearen atalak, ekipamenduak eta osagaiak identifikatzea.

EI1.2 Gas-sare batean eskuz edo automatikoki eragiteko moduko elementuak eta horien manipulazioaren ondorioak adieraztea.

EI1.3 Erabiltzaileentzat, ingurumenerako eta gasaren hornidura-zerbitzuaren kalitaterako ondorio larriak dakartzaten matxurak gerta daitezkeen puntu kritikoak zehaztea.

A2: Gas-sareetan mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaileak antolatzeko proposamenak egitea.

EI2.1 Ekipamendu eta instalazioen fabrikatzaileen informazio teknikoa interpretatzea, beharrezkoak diren datuak gas-sare baten mantentze-programara helarazteko.

EI2.2 Enpresaren mantentze-lanetarako programak deskribatzea, eguneratzea eta hobetzea, eta esku hartzeko zeregin, prozedura eta metodoen, azterketa-gamen, denboren eta beharrezkoak diren baliabide materialen eta giza baliabideen definizioa jasotzen dutela ziurtatzea.

EI2.3 Mantentze-lan prebentibo edo zuzentzaileen inguruko esku-hartzerik ohikoenen eta garrantzitsuenen kalitate-irizpideak definitzea.

EI2.4 Gas-sare eta -instalazio osagarrietan mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaileak antolatzeko ereduak deskribatzea, eta, zerbitzuaren kalitatearen, kostuaren eta segurtasunaren ikuspuntutik, abantailak eta eragozpenak balioestea.

EI2.5 Sareak mantentzeko, birgaitzeko eta berritzeko irizpide teknikoak eta ekonomikoak ezartzea.

EI2.6 Ordezko piezak eskuratzeko eginkizunaren kudeaketaren funtzionamendua eta biltegiko antolamenduarekiko lotura arrazoitzea, eta, horretarako, stockak eskuratzeko irizpideak finkatzea.

EI2.7 Gas-instalazio osagarri batean, prebentzioko mantentze-lanen antolamendua planteatzea, eta, horretarako, elementu edo puntu kritiko guztiak berrikusteko aldiak, eragiketak eta denborak finkatzea.

A3: Matxurak diagnostikatzeko teknikak aztertzea eta aplikatzea gas-sareen automatizazio-sistemekin eta errendimendua hobetzeko sistemekin lagunduta.

EI3.1 Sareetako ihesak detektatzeko baliabideak eta teknikak deskribatzea, eta egoera praktikoetan aplikatzea.

EI3.2 Gas-sareen auditoriak egitean, helburuak eta metodoak zehaztea.

EI3.3 Gas-sarearen aldagaiak erregistratzeko tresnak eta sistemak interpretatzea.

EI3.4 Mantentze-lanen kontrol-fitxak eta datuen historikoa betetzea, eta, horretarako, informazio geografikoko sistemak erabiltzea.

EI3.5 Gas-instalazio osagarri bateko matxuren historikoen kasu praktikoak interpretatzea, eta prebentzioko mantentze-lanen antolamenduan hobekuntzak proposatzea, zerbitzua eta mantentze-lanak optimizatzeke.

EI3.6 Instalazio osagarri batean dauden edo mantentze-lanen kudeaketan ezarritako prozedurek eskatzen dituzten teleaginte- eta telekomunikazio-sistemak erabiltzea.

EI3.7 Gas-sare eta -instalazio osagarrietako mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaileei lotutako esku-hartzeak dakartzaten kasu praktiko batzuetan:

- Matxuraren diagnostikoa egiteko edo dagokion esku-hartzerako erabili beharreko metodologia definitzea.
- Neurketa-aparatuen argibideak interpretatzea eta kontsigna-balioen eta balio errealen arteko erlazioa balioestea instalazioaren funtzionamenduaren diagnostikoa egiteko.
- Esku-hartzearekin lotutako dokumentu historikoak betetzea.
- Gas-sare eta -instalazio osagarrien datu-baseak antolatzea eta jasotako informazioa instalazioen errendimendua kontrolatzeko erabiltzea.

A4: Gas-sareen ustiapen- eta mantentze-lanekin lotutako prozesuak eta dokumentazioa kudeatzea.

EI4.1 Lan-partearak, albaranak, fakturak, eskaerak, inbentarioak eta mantentze-lanei lotutako bestelako dokumentu administratiboak deskribatzea eta antolatzea.

EI4.2 Bezeroaren eskariei erantzuteko prozesua deskribatzea, eta gas-banaketari lotutako erreklamazioak, matxurak eta jardunak era bateratuan kudeatzeko sistemak planteatzea.

EI4.3 Gas-sare eta -instalazio osagarrietako ustiapen- eta mantentze-lanei lotutako prozesuetan asmo orokorreko aplikazio informatikoak eta Scada aplikazioak erabiltzea.

EI4.4 Enpresan kalitatea kudeatzeko sistemei lotutako dokumentazioa betetzea.

Edukiak

1. Gas-sareen mantentze-lanetako programak.

- Mantentze-lanen egitura: Funtzioak. Helburuak. Motak.
- Mantentze-lanak kanpoan kontratatzea.
- Mantentze-lanen antolamendua: Mantentze-lan prebentiboak. Mantentze-lan zuzentzaileak.
- Mantentze-lanen ekonomia.
- Mantentze-lanetako biltegia eta materiala:
 - Hornigaiak. Mantentze-lanetako biltegiaren antolamendua eta kudeaketa.
 - Hornitzaileen homologazioa. Ordezko piezen espezifikazio teknikoak.

2. Gas-sareen mantentze-lanen kudeaketa.

- Prebentziozko mantentze-lanen plangintza eta kudeaketa.
- Gas-sareen mantentze-lanen puntu kritikoak.
- Larrialdi-planak eta larrialdiko artatzea:
 - Larrialdi-mailak. Larrialdi baten garapena. Larrialdiaren etapak. Larrialdiaren azterketa.
 - Esku hartzeko prozedurak:
 - Segurtasuna. Kalitatea kudeatzeko sistemak eta prozedurak.
 - Matxuren, erreklamazioen eta jardunen kudeaketa bateratua.
- Arriskuen prebentzioa eta segurtasuna mantentze-lanetan.
- Mantentze-lanak kudeatzeko programa informatikoak (SCADA).

3. Gas-sareen mantentze-lanen dokumentazioa.

- Inbentarioa. Biltegiaren kudeaketa.
- Matxuren abisuak eta erreklamazioak.
- Mantentze-lanetarako eskuliburuak.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Gas-sareen muntaketaren eta mantentze-lanen kudeaketa